

**044/2021 TXOSTENA, AZAROAREN 16KOA, FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARITZARENA, KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ESTATUTUAREN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA****I. SARRERA**

Txosten hau Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1 a) artikuluan xedatutakoaren arabera egin da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.e) artikuluari dagokionez, eta Gobernantza Publikoari buruzko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 18.a) artikulua arabera.

Berariaz edo modu eratorrian funtzio publikoari eragiten dioten gaiak baino ez ditu jorratzen, eta zuzendaritza honek ez ditu gainerako gaiak aztertuko.

II.- AURREKARIAK ETA XEDEA

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, gaur egun indarrean dagoenak, tresna bat ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei beren administrazio- eta erregelamendu-jarduera kokatzeko, eta haien koordinatzen saiatzen da, eginkizun eta zerbitzuen bikoiztasunak saihesteko.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko Lege berria, txosten honen xede den aurreproiektuan aurreikusia, gizarte-errealitatearen aldaketari eta Europako agintariek bultzatutako funtsezko arau-aldaketa bati erantzuten dio.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesaren erregulazio berriaren beharra, oro har, helburuen zerrendarekin justifikatzen da, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko dituzten eskumenak ezartzea, bai eta haien arteko lankidetzaren esparrua ere.
- Antzemandako kontsumo-praktika berriak arautzea, eskumen-esparruaren barruan, batez ere urrutitik edo saltokitik kanpo egindako kontratazioetan.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen prestakuntza- eta informazio-eremua indartzea, kontsumo jasagarria eta arduratsua sustatzeko.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen eta interesen babes administratiboko prozedurak, haien segurtasunaren babesa eta kontsumoko ikuskaritza indartzea.
- Kontsumoaren arloko arau-hausteen katalogoa garatzea.

Araudia kontsumoaren eremuko gizarte-errealitate aldakorrera egokituz, gizartearen eskakizun berriei aurre egin nahi zaie, baina eskumen-esparru horretan, aurreko atalean adierazi den bezala, denbora luzea darama lan garrantzitsua egiten.

Aztergai dugun lege-aurreproiektuaren xedea da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestea, defendatzea eta sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

III. AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA

1. Langile berrien premian eragiten ez duten administrazio-organoak eta -zerbitzuak

a. Kontsumoko Aholku Batzordea

Txosten honen xede den lege-aurreproiektuaren II. tituluko II. kapituluak organoaren izaera, eginkizunak, osaera eta funtzionamendua arautzen ditu, labur-labur, eta geroagoko erregelamendu-garapenera igortzen du.

Batzordeko idazkaritzari dagokionez, 204/2019 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Kontsulta Batzordearen osaera eta funtzionamenduari buruzkoa, ez du aldatzen aztergai dugun lege-aurreproiektuak; izan ere, batzorde hori sortu zenetik eta ekainaren 7ko 133/82 Dekretuaren bidez lehen aldiz arautu zenetik, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari edo eskumena duen sailari atxikitako funtzionario bati esleitu zaizkio batzordeko idazkaritzaren eginkizunak.

Era berean, egungo 204/2019 Dekretuaren 10. artikulua jasotzen duenez, Kontsumoko Aholku Batzordearen bileretara joateak ez du eskubiderik emango Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren konturako kalte-ordainik edo dietarik jasotzeko.

Txostena egiten ari gatzaizkion aurreproiektuarekin batera doan memoria ekonomikoak Kontsumoko Kontsulta Batzordearen ibilbide luzea nabarmentzen du, eta, beraz, ez du langileen beharra azpimarratzen.

b. Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarten Erregistroa

Euskadiko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak erregistratzeko dekretu-proposamen bat dago, eta, txostena egiten ari gatzaizkion lege-aurreproiektua indarrean sartzen denean, testu horren mende jarri beharko da, eragiten dion guztian.

Elkarteen eta Kontsumitzaileen Erroldaren ardura hartzen duten langileek hartuko dute beren gain Errolda horren funtzionamendua; izan ere, langile horiek lehen ere betetzen zituzten eginkizun horiek, eta esperientzia, egokitasun eta ezagutza baldintzak betetzen dituzte, eta, beraz, gaitasuna dute berehala eraginkortasunez gauzatzeko. Beraz, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarten Erregistroaren funtzioak betetzen ari dira Kontsumobiden dauden baliabideekin. Ez da langileen beharra azpimarratzen.

c. Kontsumoko Arbitraje Batzordeari laguntzeko administrazio-zerbitzua

Gatazkak konpontzeko sistema alternatiboak sustatu, kudeatu eta garatzeko eginkizuna, bereziki bitartekotza eta arbitrajea, 73. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen dena, Kontsumobide/Kontsumoko Euskal Institutua gaur egungo giza baliabideekin eta baliabide materialekin bere gain hartzen ari den jarduera bat da. Ez da langileen beharra azpimarratzen.

d. Merkatuaren ikuskaritza eta kontrolerako unitatea

Kontsumobideren egitura eta antolaketari buruzko Dekretuak ezartzen duenez, merkatuaren ikuskaritza eta kontrolerako unitateari dagokio ikuskapen-kanpainak programatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea. Gaur egun, nahikoa langile ari dira kanpaina horiek egiten. Ez da langileen beharra azpimarratzen.

1. puntu osoari dagokionez, ondorioztatzen da Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak gaur egun dituen giza baliabideak nahikoa direla arau-aldaketa berri horri aurre egiteko.

2. Funtzionarioentzat gordetako eginkizunak

Langile funtzionarioen berezko eginkizunak uztailaren 28ko 23/1998 Legeak argitu zituen, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 11ko 99/1987 Epaiak bultzatuta. Epai horren arabera, Konstituzioak, 103.3 eta 149.1.18 artikuluetan, zerbitzari publikoentzako estatutu-araubide orokorra hautatu zuen, eta legeak berak zehaztu behar ditu salbuespenak.

Administrazio honetako langile mota, lehenik eta behin, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak arautzen du. Langile horiek, 9. artikuluan, funtzionario gisa definitzen dira, eta berariaz gordetzen zaie ahalmen publikoak gauzatzean edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrak zaintzean zuzenean edo zeharka parte hartzea dakarten eginkizunak betetzea, administrazio publiko bakoitza garatzeko legean ezarritako moduan.

Azken hitz-tartearen harira, adierazi behar da Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea dela Euskal Autonomia Erkidegoa garatzeko legea, eta lege horren 19. artikulua ezartzen du euskal administrazio publikoetako lanpostuak funtzionarioek beteko dituztela, oro har, eta berariaz arautzen duela zein salbuespenetan gorde ahal izango zaien lanpostua lan-kontratudun langile finkoei. Nolanahi ere, funtzionarioentzat gordeko dira agintea erabiltzea eta legegalkularitza ematea eskatzen duten lanpostuak.

3. Giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatzea

8.3 artikulua aukera ematen du Eusko Jaurlaritzak eta Kontsumobide/Kontsumoko Euskal Institutuak giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatzeko neurriak adosteko beste administrazio batzuekin. Neurri horiek zein diren ez da argitzen. Indarrean dagoen araudiaren arabera, neurri horiek izan daitezke:

- Bitarteko funtzionarioentzat
- Karrerako funtzionarioentzat
- Lan-kontratuko langileentzat

Bitarteko funtzionarioen izendapena noiz egin behar den ezartzean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen

urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, berariaz, 10. artikuluan, egoera horien artean sartzen du aldi baterako programak gauzatzeko kasua. Programa horiek ezin izango dute hiru urtetik gorako iraupenik izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango dira, estatutu hau garatzeko funtzio publikoari buruz ematen diren legeen arabera, eta, gehienez ere, bederatzi hilabeteke epea edo gehiegikeria-egoera bat dagoenean.

Funtzionarioei dagokienez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 81. artikulua, karrerako funtzionarioen mugikortasunari buruzkoak, funtzionario publikoen borondatezko mugikortasunaren antolamendua aipatzen du, haien ordainsariak eta funtsezko lan-baldintzak errespetatuz.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54.6 artikulua beste administrazio publiko batzuetan lanpostuak edo eginkizunak betetzeko ematen diren zerbitzu-eginkizunak aipatzen ditu, eta zerbitzu-eginkizun horiek indargabetu egingo dira ezarritako epeak amaitzen direnean. Aldi baterakoa izango da, eta ordainsariak eta lanaren funtsezko baldintzak errespetatu beharko dira. Beste administrazio publiko batean zerbitzu-eginkizunetan daudenek administrazio horren lan-baldintzak bete beharko dituzte, sustapen profesionalari eta zerbitzutik kenteagatik zehapenari dagokienez izan ezik.

Aldi baterako lagapen terminoa aipatzean lan-kontratudun langileei buruz ari bagara, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 43. artikulua aplikatu behar da. Artikulu horretan berariaz baimentzen da langileak aldi baterako bakarrik lagatzea behar bezala baimendutako aldi baterako laneko enpresei. Ondorioz, langileen aldi baterako lagapenaren kontzeptua lan-arloko legeriatik dator, eta legez kanpokoa da, oso kasu zehatzetan izan ezik.

Nolanahi ere, enplegu publikoa kudeatzeko irizpideak eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailari esleitutako eskumenak bete beharko ditu.

Txosten hau ematen da, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 16

Sin.: Carmen Miralles Jordá
Aholkulari juridikoa

O.E.
Sin.: Juan María BARASORDA GOICOECHEA
FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIA